Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA
2018 10 11
SARRERA | IRTEERA
Zk. / | Zk. 918

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 11

Luisa Calvo Arbildi andrea
Adostuz-eko presidentea
Posta kutxa 25
01080 Vitoria-Gasteiz

Adostuzeko ordezkari estimatuak:

2018ko abuztuaren 28ko zuen eskutitzari erantzun nahi diot, irakaskuntza publikoko irakasleen erretiro aurreratuagatik kalte-ordaina ordaintzeko eskaera dela eta.

Eskutitz honekin nahi dudana da, lehenik eta behin, sakontasun handiagoz aztertzea, ahal bada behintzat, legitimitate osoz planteatzen duzun problematika; izan ere, iritziak trukatzeko zenbait idatzi eragiten ditu horrek. Jakin badakit bestalde bilerak izan direla Eusko Jaurlaritzako hainbat sailbururekin, eta, zuek argi eta garbi esaten diguzuenez, hainbat ekintza egin dituzuela, ekintza judizialak barne, zuen eskaerari aldeko konponbide bat emateko eskatuz Euskadiko Administrazio Nagusiko hainbat sailen bitartez.

Utziko didazue, berriro ere, zuen eskaeraren bilakaera enfokatzea azkenaldiko gure historiaren gertaera zehatz batean. Une hartan aurreikuspen ekonomiko zehatz bat zegoen gure irakaskuntza publikoko langile publikoen Lan Baldintzen Akordioan; akordio horretan jasotzen zen kalte ordainak jasoko zirela nahita edo behar zena baino lehenago erretiratzen zirenei. Krisialdi ekonomikoak hainbat itzal marraztu zituen gure bizitzetan, zuek ondo dakizuen bezala, eta horren ondorioz, hainbat parlamentuk eta horien artean Eusko Legebiltzarrak, hainbat murrizketa egitea erabaki zuten, hala nola zuek aipatzen duzuen hori. Zehazki, ez dugu behin eta berriz azalduko Euskadiren Aurrekontu Nagusien Lege batek hartu zuen erabakia, zuek orain berrezartzeko eskatzen duzuen kalte ordaina murriztu baitzuen.

Nahi nuke gure trukeetan argi eta garbi hitz egingo bagenu — izan ere, idazki honen aurretik izan dira trukeak— eta gauza bakoitzari bere izena jarriko bagenio. Zuek badakizue zer esan nahi duen Eusko Legebiltzarrean onartutako lege batek kalte ordaina ezabatzeak edo ez jasotzeak?. Ez gaude kasurik egingabeko aukera baten edo kobratu gabeko eskubide baten aurrean.

Estimadas y estimados representantes de Adostuz:

Atiendo su escrito de 28 de agosto de 2018, en relación con la petición de pago de indemnizaciones por jubilaciones anticipadas del profesorado de la enseñanza pública.

Pretendo con esta carta, en primer lugar, trabajar con mayor profundidad, si cabe, la problemática que legítimamente me plantean y que ya ha merecido varias misivas de intercambio de pareceres, así como me constan encuentros con diversos Consejeros del Gobierno Vasco y, como Ustedes bien nos advierten, varias actuaciones por su parte, incluidas judiciales, instando una solución favorable a su petición a través de diversos Departamentos de la Administración general de Euskadi.

Me van a permitir que, una vez más, enfoquemos el devenir de su petición en un episodio concreto de nuestra reciente historia. Momento en el que existía una previsión económica concreta en los Acuerdos de Condiciones de Trabajo de las personas empleadas públicas de nuestra enseñanza pública, por el que se contemplaba el abono de indemnizaciones en supuestos de jubilación voluntaria o anticipada. La crisis económica dibujó muchas sombras en nuestra vidas, como bien saben, e hizo que los Parlamentos, incluida la Cámara Vasca, adoptaran decisiones de restricción de previsiones económicas como la que les interesa. En concreto, no nos vamos a reiterar mucho en el dato conocido de que una Ley de Presupuestos Generales de Euskadi suprimió la reiterada medida indemnizatoria cuya reposición ahora Ustedes interesan.

Me gustaría que fuéramos claros en nuestros intercambios que antes de este escrito haberlos también los ha habido, y que llamemos a cada cosa por su nombre. Ustedes saben qué significa que una Ley aprobada en el Parlamento Vasco suprima o no contemple una previsión indemnizatoria. No estamos ante expectativas no atendidas o ante derechos no cobrados.

.../...

.../...

Ondo ulertzen dut zuen arazoaren kontestualizazioa erlatibizatzeko mezua (zehazki esaten didazue zuen kolektiboa ez dela beste kolektiboetan sortatuko arazoen arduraduna); baina ahalegin bat eskatuko dizuet, uste dut arrazoizkoa eta saihestezina dela hori —zuen eskaeraren benetako egoera dela eta—, horrek ez baitauka zerikusirik gure ekonomiaren egoerarekin eta ezinezkoa izango baita gastu publikoko neurri berririk sortzea edo suspertzea –nahi duzuen moduan deitu—, ez baitzaio Aurrekontuen Legean dagokion aurreikuspena egiten.

Berriro diot onartu behar dela errealitate printzipioa (judiziala eta aurrekontuena) eta gonbidatzen zaituztet onartzera, lekukotasunezkoa dela Legebiltzarreko hainbat jarreratan Eusko Legebiltzarrak Gobernuari zuzendu dizkigun bultzaden aipamena egitea, zuen eskaerari kasu egin diezaiogun. Beraz, baieztatu behar dugu ez dela egia Eusko Jaurlaritzak ez dituela Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakiak betetzen. Ezinbestekoa da borondate politikoa Aurrekontu publiko bateko aurrekontu partidetan gauzatzea, alderantziz balitz iruzurra egitea litzatekeelako.

Sentitzen dut hain kategorikoa eta hain argia izatea, baina zintzotasuna beharrezkoa da jomuga bat jartzen denean. Sentitu arren uste dut berretsi dudala orain arte hainbat sailburuk esandakoa, eta Jaurlaritzaren Kontseiluan eztabaidatutakoa.

Har ezazue nire agurrik beroena eta ziur egon zaitezte ulertzen zaituztedala.

Comprendo perfectamente el mensaje por el que quieren relativizar toda contextualización de su problema (me dicen concretamente que su colectivo no es responsable en absoluto de problemáticas surgidas en otros colectivos), pero voy a pedirles un esfuerzo, creo que es razonable e ineludible, sobre -la situación real en que se encuentra su petición, pues la misma no se encuentra interdependiente del conjunto de nuestra economía y que no resultará posible ninguna medida de gasto público nueva o revitalizada –como quieran llamarla- que no cuente con la correspondiente previsión en una nueva Ley de Presupuestos.

Reitero esa necesidad de acatar el principio de realidad (judicial y presupuestaria) y les invito a que reconozcan que como en muchos posicionamientos parlamentarios resulta testimonial la referencia que me hacen a los impulsos que el Parlamento Vasco -nos ha dirigido al Ejecutivo para que atendamos su petición. De modo que debemos afirmar que no es cierto que el Gobierno Vasco esté o pueda estar incumpliendo las decisiones del Parlamento. Resulta imprescindible que la voluntad política se materialice en las partidas presupuestarias de un Presupuesto público, porque de lo contrario nos estarían pidiendo defraudar.

Siento ser tan categórico y claro, pero la sinceridad es obligada ante cualquier aspiración. Lo digo con pesar pero confío en haber ratificado lo que hasta ahora ya les han manifestado diversos Consejeros, habiendo sido objeto de tratamiento también en el seno del Consejo de Gobierno.

Reciban mi más cordial saludo y comprensión.

**Iñigo Urkullu Renteria**
**Lehendakaria**